

Eraikin-parkeak 225.679 unitate izan ditu 2020an, Euskal AEn


Eraikinen % 80 etxebizitzara bideratzen dira osorik edo zati batean

Euskal AEn 225.679 eraikin egon dira 2020an; haietatik, % 58,7k etxebizitzak baino ez dituzte, % 21,9 erabilera mistokoak dira –alegia, eraikinak etxebizitzak eta lokalak ditu– eta gainerako % 19,5ak lokalak baino ez ditu, Eustaten datuen arabera.

Lurralde historikoen arabera, Araba nabarmentzen da; izan ere, bertan, hamar eraikinetik seik etxebizitza-erabilera baino ez dute (30.649 unitate). Bizkaiak gaintitu egiten du, baina neurri txikiagoan, etxebizitza soilik duten eraikinen erkidegoaren batez bestekoa, 62.455 eraikin baititu (% 59,3), eta Gipuzkoa Euskal AEn batez bestekoaren azpitik dago, 39.334 eraikin baititu (% 55,4). Etxebizitza eta lokal gisa erabiltzeari dagokionez, Bizkaia (% 24,2) eta Gipuzkoa (% 23,3) nabarmentzen dira, hamar eraikinetik bik erabilera mistoa baitute. Lokalak soilik dituzten eraikinak direla eta, Arabako lurraldea nabarmentzen da, 11.402 unitate baititu (% 23,1).


Hiriburuak direla eta, eraikinen kopuru osoa honako hau da: 14.533 Vitoria-Gasteizen, 12.535 Bilbon eta 13.415 Donostian. Eraikinaren xedearen araberrako unitateen banaketan, Bilbo eta Vitoria-Gasteiz dira nabarmentzekoak, erabilera mistoagatik (% 57,5 eta % 37,7, hurrenez hurren); Donostia soilik etxebizitzaren eraikinen ehunekoan (% 52,6) eta lokalak soilik dituztenetan (% 20,1) nabarmentzen da.

Euskal AEko eraikinak, lurralde historikoaren eta erabileraren arabera (p). 2020



Iturria: Eustat. Eraikinen eta lokalen zentsua

Euskal AEko lurralde historikoetako hiriburuetako eraikinak, erabileraren arabera (p) (%). 2020



Eraikinen tipologiaren arabera, bizitegikoak nabarmentzen dira, hamar eraikinetik zortzi (181.757 unitate, alegia), eta, ondoren, industrialak (17.974 eraikin, % 8), komertzialak (5.475 unitate, % 2,4) eta bulegoetakoak (4.637 eraikin, % 2,1). Zifra txikiak kirol eta ikuskizunen eraikinetan daude (3.485 eraikin, % 1,5), erlijiozkoak (2.860 zentro, % 1,3) eta kulturalak (2.459 eraikin, % 1,1); ostalaritzakoak (1.086) eta sanitarioak eta gizarte-zerbitzuak (844) dira zerrendako azkenak (% 0,9).

10 solairuko edo gehiagoko eraikinak 4.000 baino gehiago dira

Eraikinen % 2k baino gutxiagok 10 solairu edo gehiago dituzte Euskal AEn, baita sestra gaineko solairuak eta sestra azpikoak kontuan hartuta ere, sotoak eta beheko solairu estaliak barne, garajeak edo trastelekuak izanez gero.

Solairu bateko, 2-3 solairutako eta 4-9 solairutako eraikinen kopuruak antzekoak dira: % 27,7, % 38,9 eta % 31,5, hurrenez hurren. Nahiz eta zifra oso baxuak izan, 10 solairuko eta gehiagoko eraikinak 4.348 dira. 7 udalerrik baino ez dituzte 10 solairuko edo gehiagoko 100 eraikin baino gehiago: Bilbo (1.510), Donostia (711), Vitoria-Gasteiz (665), Barakaldo (254), Basauri (148), Santurtzi (104) eta Portugalete (100).

Bizitegi-eraikinen % 44k trastelekua dute eta % 33k, garajea

Nagusiki etxebizitzarako diren eraikinak soilik aintzat hartuta, egiaztatzen da % 44k trastelekua duela, % 33,3k garajea duela eta % 28k igogailua. Trastelekua duten eraikinen proportzioen arteko aldeak oso txikiak dira lurralde historikoen artean: % 47,8 Gipuzkoan, maximoa, % 41,2 Bizkaian, minimoa, eta % 44,7 Araban, tartekoa.

Gipuzkoak du garajedun eraikinen ehuneko altuena (% 42,9), ondoren Bizkaiak (% 30,4) eta, azkenik, Arabak (% 25,9). Antzeko zerbait gertatzen da igogailuarekin; izan ere, Gipuzkoan eraikinen % 33,7k dute, Bizkaiak % 27,1ek eta Araban % 21,6k.

Hiru hiriburuak direla eta, egoera pixka bat desberdina da: Bilbok igogailua duten eraikinen proportzio handiena du (% 61,4), bai eta trastelekuak dutenena ere (% 46,8); Donostiak garajeen ehuneko handiena du (% 44,8), eta, azkenik, Vitoria-Gasteizek tarteko posizioa du igogailuetan (% 54,6) eta garajeetan (% 32,4), eta Donostiaren mailara hurbiltzen da trastelekuetan: % 41,8 eta % 42,4, hurrenez hurren.

Bizitegi-eraikinen erdiak botika du hamar minutura, eta % 70ek, osasun-zentroa hoge minutura

2020ko Eraikinen eta lokalen zentsua Ekipamendu eta Zerbitzuen Inbentarioarekin konbinatzen da, eraikinen hurbileko inguruneke ekipamendu- eta zerbitzu-kopuruari buruzko datuak sortzeko.

Ikusten den lehendabiziko gauza da oinez 10 minutu baino gutxiagora daudelako aukeratutako 9 ekipamenduen artean taberna/kafetegia dagoela (% 62,4 inguru). Gainerako ekipamenduak honako proportzio hauetan daude: % 44,6 Elikagaien dendak eta % 49,8 Botikak. Presentzia gutxiago dute Fruta-dendek eta arraindegiek (% 37 inguru).

Eraikinak ekipamenduka, 10 eta 20 minutu baino gutxiagora (p). 2020

Ekipamenduak	10 minutu baino gutxiagora (%)	Ekipamenduak	20 minutu baino gutxiagora (%)
Taberna/Kafetegia	62,4	Jatetxea	74,5
Farmazia	49,8	Osasun-zentroak	70,5
Okindegia	48,8	Lehen Hezkuntzako ikastetxea	62,3
Haur Hezkuntzako ikastetxea	45,3	Banku-bulegoa	58
Harategia	44,7	Posta bulegoa	46,5
Janari-denda	44,6	Liburutegia	39,5
Supermerkatua	39,5	Zinema/Antzokia	19,5
Fruta-denda	37,5		
Arrandegia	36,4		

Iturria: Eustat. Eraikinen eta lokalen zentsua

Modu berean, 20 minutu baino gutxiagora, eraikinen % 74,5ek jatetxe bat dute; eraikinen % 70,5ek osasun-zentro bat dute; % 62,3k Lehen Hezkuntzako zentro bat dute, eta % 58k banku-bulego bat dute. Presentzia txikiagoa dute posta-bulegoek (% 46,5), liburutegiek (% 39,5) eta, azkenik, zinemek/antzokiek, zeinak % 20ren kasuan baitaude 20 minutura.


Tarteen bi heren 10.001€ eta 100.000€ artean baloratzen dira

2020ko Eraikin eta lokalen zentsuak aukera ematen du, gainera, tarte horien erabileraren tipologia xehatua ezagutzeko, non etxebizitzak, alde handiz, nagusi baitira; izan ere, ia 1,07 milioi daude. Ondoren, baina oso urrun, saltokiak (141.973) eta industriak (38.132) daude.

Tarteak oso desberdinak dira erabileran, baina baita beste ezaugarri batzuetan ere, besteak beste azaleran edo antzintasunean; beraz, zaila da batzuen eta besteen arteko erkaketa egitea.

Katastro-balorazioa dela eta, kontuan izan behar da balioa zenbait faktoreren arabera dela, besteak beste higiezinaren lokalizazioaren, eraikinen kostuaren, sustapeneko enpresa-jardueraren onuren eta merkatuko egoeren eta balioen arabera.

Euskal AEko eraikinen tarteak, katastroko balorazioaren arabera (p) (%). 2020



Iturria: Eustat. Eraikinen eta lokalen zentsua

Zehaztapen horien bidez ikusten da tarteen bi heren baino gehiagok 10.001€ eta 100.000€ bitarteko katastro-balorazioa dutela, eta erdien arabera banatzen direla estratu bakoitzean; % 0,3k 1.000€ baino gutxiago balio dute eta % 2,9k 300.000€ gainditzen dituzte.

100.000€ baino gehiagoko katastro-balioen maila bikoiztu egiten da Gipuzkoako lurralde historikoan, non tarteen % 56,4k balio hori gainditzen baitu; Euskal AE osoan, bestalde, % 28,2koa da, Arabako ehunekoaren oso antzera (% 24,2). Bizkaia da balio hori duten tarteen proportzio txikiena duen lurraldea (% 12,2).

Araba nabarmendu egiten da 50.001-100.000€-ko katastro-balioen kontzentrazioagatik (% 45,6) eta Bizkaia antzeko kontzentrazioagatik aurreko estratuan, 10.001-50.000€-koan (% 45).

Udal-mailan, 10 udalerri baino ez dute 300.001€-an edo hortik gora baloratutako tarteen ehuneko % 5etik gorakoa; haietako 6 Gipuzkoakoak dira, 3 Arabakoak eta bakar 1 Bizkaikoa. Honako hauek dira: Hondarribia (% 15,1), Donostia (% 14,9), Aduna (% 8,6),

Legutio (% 8,3), Zarautz eta Oiartzun (% 7,8), Zuia (% 6,9), Laukiz eta Olaberria (% 6,0) eta, azkenik, Elburgo/Burgelu (% 5,4).

OHAR METODOLOGIKOA:

Datuak behin-behinekoak dira. Edizio honetan, errolda-unibertsoa zabaldu da, zeinak nekazaritza- eta abeltzaintza-erabilerara soilik bideratzen diren eraikinak ere jasotzen baititu. Hori dela eta, eta iturri berriak erabili direlako, datuak ezin dira zehatz erkatu 2010eko Eraikin eta lokalen zentsuarekin.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62